OIARTZUNGO UDALA

**Espedientearen kodea:** 2023ZZ020007
**Espedientearen gaia**: 2023-2024 ikasturtean euskara ikasteko eta hobetzeko dirulaguntzak arautzeko oinarri bereziak eta deialdia
**Dekretuaren zenbakia:** 1597/2024

---

# IRAGARKIA

Alkateak, 2024/10/24 dataz, honako Ebazpena eman du:

"2023ko ekainaren 23an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren Oiartzungo udalerrian euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzak arautzeko oinarri bereziak. Besteren artean, Euskara ikasteko eta hobetzeko dirulaguntzak. Dirulaguntza horiek emateko, kontuan izango da Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza eta 2022-2024rako dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

Deialdian jarritako baldintzen baitan, 2023-2024 ikasturteko udako ikastaroetako 12 ikasleren beka eskaerak jaso dira 2024ko urrian.

2023-2024 ikasturteko udako ikastaroetako ikasleen eskaera guztiei aurre egin ahal izateko, guztira 3.043,08 € euro beharko dira.

Hizkuntz Normalizaziorako teknikariaren txostena ikusita eta Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan,

ERABAKI DUT

LEHENA: Udako ikastaroetako bekak ordaintzeko 3.043,08 € euroko gastua onartzea. Ordainketa 1.0321.480.335.00.01 2024 / A-1558-2024 diru-atalaren kargura egingo da.

BIGARRENA: Onartutako gastua ondorengo ikasleen artean banatzea, ikasle bakoitzari dagokion kopuruaren arabera.

| | NA | EZAUGARRIAK | EUSKALTEGIA | MAILA | ORDAINDUTAKO MATRIKULA | DAGOKION % | BEKAREN ZENBATEKOA | ASISTENTZIA % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | ***7634** | Langabetua | Maizpide barnetegia (klaseak) | C1 | 1.192,00 € | 70 | 834,40 € | 95 |
| 1 | | | Maizpide barnetegia (Egoitza) | | 757,40 € | 20 | 151,48 € | 95 |
| 2 | ***6792** | Orokorra | Xenpelar AEK | B2 | 336,00 € | 100 | 336,00 € | 100 |
| 3 | ***4756** | Orokorra | Hitzez euskaltegia | B2 | 142,00 € | 100 | 142,00 € | 100 |
| 4 | ***7525** | Ikaslea | Bidasoko AEK | B2 | 168,00 € | 100 | 168,00 € | 100 |
| 5 | ***9122** | ikaslea | Oroitzene AEK | C1 | 168,00 € | 70 | 117,60 € | 100 |
| 6 | ***8232** | Orokorra | Intxixu AEK | B2 | 168,00 € | 100 | 168,00 € | 96 |
| 7 | ***8789** | Orokorra | Intxixu AEK | B2 | 168,00 € | 100 | 168,00 € | 93 |
| 8 | ***8844** | Orokorra | Intxixu AEK | B2 | 168,00 € | 100 | 168,00 € | 96 |
| 9 | ***5474** | ikaslea | Intxixu AEK | C1 | 168,00 € | 70 | 117,60 € | 100 |
| 10 | ***6530** | Orokorra | Oroitzene AEK | B2 | 168,00 € | 100 | 168,00 € | 85 |

ESKU2c9f6f0e-ce49-46b7-a6d4-37beb3e0d31d

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 11 | ***7140** | Orokorra | Oroitzene AEK | B2 | 336,00 € | 100 | 336,00 € | 98 |
| 12 | ***6343** | Orokorra | Oroitzene AEK | B2 | 168,00 € | 100 | 168,00 € | 100 |
| | | | **GUZTIRA** | | **4.107,40 €** | | **3.043,08 €** | |

..

Eta horren berri ematen dizuegu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA aurkez dezakezu Administrazioarekiko Auzitarako Donostiako Epaitegian BI HILABETEKO epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera. Eta Administrazio Publikoen Prozedura Arrunta arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. artikuluarekin bat etorriz.
Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari HILABETEKO epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita. Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluarekin bat etorriz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsoak aurkezteari kalterik egin gabe.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Idazkaria

Xabier de la Mota Vazquez

Elektronikoki sinatua

EKS | CSV: ESKU2c9f6f0e-ce49-46b7-a6d4-37beb3e0d31d
*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310*

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2023ZZ020007-20241024 udako bekak iragarkia/20241024 udako bekak |
|---|---|

Sinatzailea 1 / Firmante 1: XABIER DE LA MOTA VAZQUEZ - 72512750Y
Data / Fecha: 2024/10/25 10:17:01